

# Enpresak



**Lehen Aukera  
programa**  
2022 (EHAA 2021/12/31)





01

# Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak

# Kontratu mugagabeak edo praktikaldiko kontratuak

- EAEn dauden lan-zentroetako lanpostuetan jarduteko lan-kontratu mugagabeak eta gutxienez 6 hilabete irauten duten praktikaldiko kontratuak.; gazteok langabetuak eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon behar dute.
  - **2022ko urriaren 31ra arte.**
  - Lanaldi osoa edo partziala (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoa).
  - Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketamailari edo trebakuntzari egokituta egon beharko du.
  - Idatziz formalizatu beharko da, eta titulazioa, hasiera- eta amaiera-data, iraupena eta lanpostua Lehen Aukera programa eta, beharrezkoa bada, kontratu dagokion eskaintzaren erreferentzia aipatuz.
  - Kontratazioek **enplegu sorrera garbia** eragin beharko dute, kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko sei hiletako batez besteko langile kopurua kontuan hartuz. Kontratazio-egunear, kontratu berriak lehen aipatutako batez bestekoa handitzea ekarri behar du.
- Azken ondorioetarako, adierazitako baldintza ez da betegabetzat hartuko kontratuak arrazoi hauengatik amaitu badira: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
- Senidetasun-falta, 3.4. a) artikulua araberakoa.
  - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz lagungarriak diren jardueri lotuta gauza ez daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan diruz lagunduak izan ez direnak.

— **Urteko ordainsari gordina** kontratuan zehaztu beharko da eta deialdiaren 3.2.c) artikuluko ezarritako gutxienekoen arabera egin beharko da:

<b>Titulu akademikoa</b>	<b>Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko pagak barne)</b>
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana, Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana	21.200,00 €
.....	.....
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	18.200,00 €
.....	.....
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarrizko lanbide heziketa eta Profesionaltasun Ziurtagiria	14.000,00 €

***Edonola ere, Langileen Estatutuan egiten diren aurreikuspenetara egokitu beharko dira, eta aplikatzekoa den gainerako arauetara ere.***

02

# Enpresa eta erakunde onuradunak



**Enpresa pribatuak** (edozein dela ere haien forma juridikokoa), banako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, baldin eta hurrengo **baldintza** hauek betetzen badituzte:

- a. Helbide soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b. Herri-administrazio batek edo gehiagok enpresa horretan % 50etik gorako partaidetza ez izatea, ez zuzenean ez zeharka.
- c. Enpresaren langileen legezko ordezkari jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa dagoela. Enpresak berariaz adierazi behar du eskabidean langileen legezko ordezkari duen ala ez.
- d. Aldez aurretik Europar Batasuneko Batzordeak hartutako erabaki baten ostean ez egotea erreperatzeko agindu bati lotuta, zeinak laguntza bat merkatu erkidearekin bateraezina edo legez kanpkoa dela baitu.

## Enpresek eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

- a. Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.
- b. Egunean izatea diru-laguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
- c. Emakumeei eta gizonei tratu eta aukera berdinei emateko printzipioaren arabera izatea haren helburuak eta xedeak, hartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolakundea edo estatutuak.
- d. Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Efektiborako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoa.
- e. Ez egotea Diru Laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13an artikuluan diru-laguntzak eskuratzeari dagokionez aurreikusitako ezein debeku-egoeratan.

Honako hauek ezin izango dira erakunde onuraduna izan:

- Erakunde autonomoak.
- Sozietate publikoak.
- Administrazio publiko baten mendekoak diren elkarteak edo erakundeak.
- Eskura jartzeko enpleguetarako ABLEak.

**Diru-laguntzak emateko** eta, hala badagokio, **ordaintzeko**, amaitu egin beharko dira itzultze- edo zehapen-prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasitako eta izapideetan dauden prozedurak alegia.



# 03

## Parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura

Programan parte hartuko duten gazteen **hautaketa** (eta kontratazioa) eskabidea aurkeztu baino lehenago egingo da, prozedura honi jarraituz:

1. Enpresak zuzenean hautatuta.
2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez.

# 01. Enpresak zuzenean hautatuta,

**erakunde kolaboratzailea den zentroaren bidez**, non **2021.** urtetik aurrera titulazioa lortzeko kontratatuko den gazteak bere ikasketak bukatu baititu, behin Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zentro(et)an **2021-2022**ko kurtso akademikoan prestakuntza epealdia egin eta gero hauetako ereduren batean:

- **Prestakuntza duala**, prestakuntzaren xedea hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko denean.
- **Bekak**, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako tituluren bat lortu aurretik enpresan prestakuntza jasotzeko Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandakoak.
- **Bekak**, Unibertsitate-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio gisa Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandakoak.

Enpresak, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrorra joko du, baldin eta prestakuntza-zentroak lortu badu **trantsizio-prozesua kudeatu eta jarraitzeko erakunde laguntzailearen** izaera, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.

## 02. Enplegu eskaintzen kudeaketa,

**Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez** gazteak kontratatzeko, enpresak zuzenean hautatuta barne ez diren kasuetan:

- Hautaketarako, **eskaintza kudeatzeko eskaera** bat aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostuaren profil bakoitzeko. Eskaera hori inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, deialdiaren **IV. eranskinean** ezarritako ereduaren arabera.
- Eskaintza kudeatzeko eskaera bakoitza jasotzen duen bulegoak edo erakunde kolaboratzaileak erregistratuko du eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geldituko da. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia
  - **Lehentasuna** emango zaie **Gazte Bermea Sisteman izena emanda daudenei**, 5.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
  - Lehen Aukera praktikaldiko kontratuaren modalitatea baliatuta aurreko edizioen batean kontratatu ziren pertsonak oraingo deialdiaren ondorioetarako kontuan har daitezke kontratu **mugagabearen modalitatean soilik**, jada eskuratu duten lan-esperientzia gorabehera, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa **ez bada praktikaldiko kontratua egin zuen enpresa** berbera.
- Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsoneri egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko
- Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

04

# Diru-laguntzaren zenbatekoa



## Enpresak


Praktikaldiko edo mugagabeko kontratua, titulu akademikoaren arabera	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea
	Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako		Diru-laguntza 6 hilabeterako (Emakumea)	Diru-laguntza 12 hilabeterako (Emakumea)	Diru-laguntza (Emakumea)
Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo Masterra-Boloniako Plana, Unibertsitateko diplomatura, Ingeniaritza teknikoa, Arkitektura teknikoa edo Unibertsitateko Gradua- Boloniako Plana	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00€
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.550,00,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarrizko lanbide heziketa eta Profesionaltasun Ziurtagiria	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

— Diru-laguntzen zenbateko hauek lanaldi osoko kontratuei dagozkie, lanaldi partzialekoetarako lanaldiaren proportzioan doituko dira.

05

**Eskaeraren aurkezpena**

8



# Diru-laguntza eskatzeko epeak

Dirulaguntza-eskabideak guztiak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, hau da, <https://euskadi.eus> helbidetik; Lanbideren webgunean, bertara sartzeko lotura bat egongo da.

**ENPRESEN ESKABIDEAK**



Lan-kontratuak egiteagatiko diru-laguntzaren eskaera:  
EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik

**2022ko urriaren 31ra arte**

*(diruz lagundu daitekeen kontratuaren azken eguna)*

06

## Diru-laguntzaren ordainketa





## Enpresak

1. ordainketa: 52%



diru-laguntza emandako unean (\*)

2. ordainketa: 48%



edo justifikazioaren ondorioz dagokion kopurua (\*\*)

(\*) Lan-kontratuak egiteagatiko diru-laguntzaren eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Kontratuaren kopia, NAN/AIZ, identifikazio fiskaleko txartela, enpresa eratu dela ziurtatzen duten eskritura, senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, enpresako batez besteko plantillaren justifikazioa bi txostenen bitartez («Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena») GSDN egindakoak- RED sistemaren bidez eskuratuak-, enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko sei hilabetei dagokiona, eta bestea, kontratazioaren alta egunari dagokiona) eta deialdi bakoitzean adierazten diren gainerako dokumentuak.

Gainera, enpresak gazteak zuzenean hautatzen dituenean, ikasketak egin dituen zentroarekin elkarlanean (7.1.a artikulua): Aurkeztutako kontratuan adierazitako titulua eskuratu izana egiaztatzen duen agiria eta kontratua egin den enpresan prestakuntza-aldia egin izana egiaztatzen duen agiria.

(\*\*) Hilabeteko epean praktiketako kontratuak amaitu ondoren eta lan-kontratu mugagabeen kasuan, hasi eta urtebete igaro ondoren eta, edonola ere, 2023ko abenduaren 15a baino lehen: Aurkeztu kontratatutako pertsonen zerrenda, kontratuen iraupena jasota.

The background of the slide is a photograph of a modern building's exterior. It features a grid of windows with thin grey frames. Overlaid on this grid are several vertical, rectangular grey bars of varying heights, creating a rhythmic, architectural pattern. The lighting is bright, suggesting a sunny day.

07

# Enpresa onuradunen betebeharrak

# 01 Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak ere.

Bereziki, honako hauek:

- a. Kontratuak 7.1.a artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrora 118. zk. 2018ko ekainaren 20a, asteazkena jo behar dute, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.
- b. Kontratuak 7.1.b artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo haren erakunde kolaboratzaile batean aurkeztu beharko dute enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskaera.
- c. Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.
- d. Plantillaren enplegu-mailari eustea 9. artikuluan adierazitako kontratuen gutxienerako iraunaldian.
- e. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzea laguntza jasotzeko betebeharrak eta baldintzak bete direla.

- f. Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-istantziak. Diruz lagun daitezkeen gastuak Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, erakunde onuradunean gastuaren kontabilitate-erregistro bat eraman behar da, kontabilitate-identifikazio bereizi batekin edo kontabilitate-kode egoki batekin.
- g. Helburu berberarekin administrazio honen bidez edo beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- h. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintzaren aldaketa, baita diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmenki eragiten dion edozein gertakizun ere.
- i. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzea jarduera horiek egiaztatzeko, haien jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.
- j. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

k. 2014-2020rako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren edo 2014-2020ko EGF Programa Operatiboaren esparruan, deialdi honen babesean diruz lagundutako komunikazio-, zabaltze-, edo argitalpen-material eta ekintza guztietan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtsak elkarrekin finantzatu dituztela adieraztea. Enpresa onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115. artikuluan adierazitako zerrenda publikoan jasoko da.

l. Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak:

— Probetan edo elkarizketetan eta lanpostuetarako hautatzean tratu- eta aukera-berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea

*Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, balio hauek izango dituenak: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero-identitate pluralak.*

m. Kontratatutako pertsonen adostasuna lortzea, haien datuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jartzeko, eskatutako diru-laguntza kudeatzeko soil-soilik, eta deialdi honen 24. artikuluan xedatutako edukiaren berri ematea kontratatuei.

**02** Era berean, praktikaldiko kontratu bat amaitzean bete beharko den betebeharrak espezifiko gisa, enpresak ziurtagiri bat egin behar dio langileari. Hor, honako hauek jaso behar dira, gutxienez:

- Kontratuaren iraupena.
- Betebeharrak, eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.